

JAKINARAZTEN DA Alkateak 2022ko ekainaren 23an ondorengo Dekretu hau eman duela:

“Udaleko arkitektoak Hirigintzarako delineatzaile topografo baten eskaera egin zuen, egun kontratatuta dagoen aldi baterako langilearen baimen edo lizentziek irauten duten bitartean ordezkapena egiteko.

Behin-behineko lanpostua betetzeko deialdiari dagozkion oinarriak onartu ziren 2022ko maiatzaren 11n emandako dekretu baten bidez.

Deialdia egin ondoren izena eman duten bi izangaiek adierazi dute ez dutela egun duten lana utziko Bergarako Udalean dagoen aldi baterako kontratuagatik eta lan-poltsan egoteko eman dutela izena.

Kontuan izanda deialdia lan-poltsa osatzeko zela eta, beraz, deialdiarekin aurrera egitea dagokiola udalari, oinarri berdinekin Lanbidetik deialdia egitea eta bi prozesuak batera eramatea planteatzen da.

Horrenbestez, **ERABAKI DUT:**

LEHENENGOA: Aldi baterako delineatzaile topografoa kontratatzeke hautaketa-prozesua arautzen duten oinarriekin Lanbidera deialdia egitea.

Bi lan-poltsa egongo dira: lehenbizi egindako deialdia gainditzen duten izangaiekin bat, eta lehenasuna izango duena; eta Lanbidetik egindako deialdian gainditzen duten izangaiekin bigarrena.

Hautaketa-prozesuak berdinak izango dira eta une berean egingo dira.

BIGARRENA: Deialdia udaleko web-orrian eta Lanbidek iragartzea.”

Ebazpenaren aurkako bideak

Administrazio bidean behin betikoa den erabaki honen aurka Administrazioarekiko auzi errekurtsua jar dezakezu, Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian. Horretarako bi hilabeteko epea duzu, jakinarazpen hau jasotzen duzun hurrengo egunetik hasita.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idazatian adierazitako Administrazioarekiko Auzi errekurtsuaren aurretik, berraztertze errekurtsua jar dezakezu erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean jakinarazpena jasotzen duzun hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Dena den, egoki deritzozun beste edozein errekurtsu ere jar dezakezu.

LEGE-OINARRIA: Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114.c, 123. eta 124. atalak, Administrazioarekiko Auzitarako Jurisdikzioari buruzko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. atala, abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoan aldatua, eta lege bereko 46. atalak eta Kode Zibilaren 5. atala.

Bergara, 2022ko uztailaren 8a

